

## AGINTALDI PLANA KUDEAKETA PLANERA IRISTEA

### Errenteriako Udala



### 7. printzipioa. Kalitatezko administrazioa, eraginkorra eta efizientea

**3. adierazlea:** Herritarren parte hartzeko mekanismoek toki-administrazioari herritarren beharrak eta interesak identifikatzeko eta haien eskubideak betetzen direla egiaztatzeko aukera ematen diote.

#### Dokumentu-ebidentzia

<https://errenteria.eus/agintaldi-plana/>

#### Esparrua (jarduera)

Administrazio ona ziurtatzea, kalitatezko legedi, prozesu egoki eta bulego irisgarrien bidez.

#### Deskribapena

Errenteriako Udalak 2023-2027 Agintaldirako Plana osatu zuen udala abiatzearekin batera. Agintaldi horretarako plan horrek politika publikoak garatzeko marko bat, helburu nagusiak eta horiek lortzeko

proiektuak jasotzen ditu. Era berean, proiektu bakoitzak agintaldia irauten duen urte bakoitzean izan beharreko garapena, horrek eskatzen duen aurrekontua, proiektuko arduradun eta parte hartzaileen zehaztapena eta GJHetan duten lerrokatzea zehazten ditu. Behin zehaztaper hori guztia eginda, urtez urteko kudeaketa planak Agintaldi Planeko proiektuen gauzatzea errazten du eta herritarrekin hartutako konpromisoa gardenagoa bihurtzen du. Horrez gain agintaldiaren erdian planaren ebaluazioa egiteko ausaz aukeratutako herritarren batzorde bat osatzea aurreikusten da.